

- Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua erabiltzeko behar ditugun baliabide fisikoak mugikorra eta ordenagailuak dira, ordenagailuan gure aplikazioaren diseinua nolakoa izango den erabakitzeko eta egiteko erabiliko dugu eta mugikorra, gure aplikazioaren inguruan probak egiteko, nola funtzionatzen duen ikusteko eta ea aldaketaren bat egin behar dugun edo ez jakiteko.

Baliabide intelektualak, aplikazioaren diseinua egiteko Nahiaren sormena, Junek antolakuntzarako eta diru kontuak eramateko dituen abileziak, Leirek bezeroak bilatzeko duen abilezia aterako du baita ere enpresetara bisitak egiteko eta Udane informatikaren inguruan dakiena aterako du proiektua aurrera eraman ahal izateko.



**Funtsezko
Baliabideak**



Finantza baliabideak, denok ditugun aurrezkiak izango dira. Bakoitzak 5.000 € jarriko ditugu hasierako inbertsioa egiteko. Kapitala 25.000 € denez, guk horren %80a jarriko dugu eta beste enpresa kolaboratzaileek gainerako %20a. Horietatik pentsatzen dugu 4.500 € izango direla aplikazioa enpresa espezializatu baten bitartez sortzeko eta beste 3.500 € -ak hasierako *influencer*-ekin akordioak egiteko.

Giza baliabideak, lau bazkideak izango gara, eta arazo larriren bat edukiz gero, edo beste pertsona baten beharra edukiz gero, kontratatatu egingo genuko gure arazoa konpontzen laguntzeko. Aplikazioa sortzen eta konpontzen lagunduko digun enpresa edo pertsona beharrezkoa izango dugunean soilik kontratatuko dugu, hau da, ez dugu mantenduko.

